



SONAR UNIR



TXOSTEN OFIZIALA MEMORIA OFICIAL 2023-2024



II EUSKAL NON-LEAGUE DAY

Athletic Clubek Euskal Non-League Day-ren bigarren edizioa ospatu zuen martxoaren 23an eta 24an Euskal Herriko 86 futbol zelaitan. “Babestu bertako futbola!” lelopean, milaka zalek bat egin zuten Euskal Non-League Day jaiarekin eta programatutako partidetara bertaratu ziren.

Jatorri britainiarreko ekimen honen lehen edizioa 2023ko irailean antolatu zen 125. urteurreneko ospakizunen programaren beste ekitaldi bat bezala. Ekitaldiaren harrera oso positiboa izan zen eta Athletic Clubek, Fundazioaren eskutik, bigarren edizioa planifikatu zuen bere nazioarteko jatorrizko datan, martxoan, gizonezkoen lehen taldearen lehiarik gabeko jardunaldi bat aprobetxatzuz.

Lehen edizioan gertatu zen bezala, zenbait futbol zelaitan oinarri-futbolaren aintzatespen-festa hori jokalekutik haratago joan zen, eta partiden inguruko jarduera kulturalak edo ludikoak antolatu ziren.

Non-League Day partidetara bertaratu ziren zaleek Athletic

Clubek bertako zelaietara joatea sustatzeko antolatu zituen zozketetan parte hartzea aukera izan zuten.

Parte hartu zuten klub bakoitzak txartel-sorta bana jaso zuen aldez aurretik, eta 3 euroan saldu ziren. Bildutako diru guztia hitzartutako klubera bideratu zen.

Hauek izan ziren zozkatu ziren hiru sariak (bi sari orokor eta parte hartu zuen hitzartutako klub bakoitzak berea):

Sarrera bikoitza, bidaia eta egonaldia gizonezkoen lehen taldearekin batera Getafe CF-Athletic Club partidara.

Lions Experience-en sarrera bikoitza San Mamesen LaLigako Athletic Club-Villarreal CF partidarako, VIP eratzuneko eserlekuak, welcome pack-a, futbolarien etorrera barrutik bizitze-ko estadioaren barrura sartzeko aukera, beroketa zelaian, eta partida amaituta lehoi batekin aurrez aurreko topaketa barne.

Athletic Club-Villarreal CF partidarako sarrera bikoitza San Mamesen. Modu independentean zozkatu ziren hitzartutako klub parte-hartzileen zelai bakoitzean.



II EUSKAL NON-LEAGUE DAY

El Athletic Club celebró la segunda edición del Euskal Non-League Day el 23 y 24 de marzo en 86 campos de Euskal Herria. Bajo el lema “¡Apoya el fútbol local!”, miles de aficionados y aficionadas se sumaron a la fiesta del Euskal Non-League Day y asistieron a los partidos programados.

La primera edición de esta iniciativa de origen británico se organizó en septiembre de 2023 como un acto más del programa de celebraciones del 125 aniversario. La acogida del evento fue muy positiva y el Athletic Club, de la mano de Fundazioa, planificó la segunda edición en su fecha original internacional en marzo, aprovechando una jornada sin competición del primer equipo masculino.

Al igual que sucedió en la primera edición, en algunos campos esta fiesta de reconocimiento del fútbol base fue más allá del terreno de juego, organizándose actividades culturales o lúdicas en torno a los partidos.

Los aficionados y aficionadas que acudieron a los partidos de los clubes convenidos Non-League Day tuvieron la oportunidad

- 1 partidos de ENLD, así como comunicación el mismo día en redes y posterior con un vídeo de participación
- 2 Facilitando BOLETOS y CARTELERÍA a los Clubes convenidos que se adhieran
- 3 Ofreciendo PREMIOS para 3 sorteos:
 1. Sorteo en cada campo de 2 entradas para un partido de LaLiga en SM
 2. Sorteo por parte del Club de 2 grandes premios:
 - Un viaje para dos personas con el 1º equipo masculino a un partido fuera de casa
 - Dos Lions Experience en San Mamés en un partido de casa
 3. Sorteo de 2 camisetas firmadas y 2 entradas entre los que cuelguen fotos en los partidos de los clubes con el #EuskalNonLeague Day en redes sociales
- 4 Facilitando material de comunicación sobre ENLD para las RRSS, web o grupos de WhatsApp de los clubes

de participar en los sorteos que el Athletic Club organizó para fomentar la asistencia a los campos locales.

Cada uno de los clubes convenidos participantes recibió con antelación un lote de boletos que se vendieron por 3€, siendo el dinero recaudado destinado íntegramente al club convenido.

Los tres premios (dos generales y uno propio para cada club convenido participante) que se sortearon fueron los siguientes:

Entrada doble, viaje y estancia para dos personas junto al primer equipo masculino al partido Getafe CF-Athletic Club.

Entrada doble para Lions Experience para el partido de LaLiga Athletic Club-Villarreal CF en San Mamés. Incluía localidades en anillo VIP, welcome pack, y acceso al interior del estadio para vivir desde dentro la llegada de los futbolistas, el calentamiento a pie de campo, y un encuentro personal con un león cuando finalizó el partido.

Entradas dobles para el Athletic Club-Villarreal CF de San Mamés. Se sortearon de manera independiente en cada uno de los campos de los clubes convenidos participantes.



INKLUSIO-PROIEKTUEN BIDEZ GIZARTEAREN PRESENTZIA ETA ERAGIN ERA DATZAILEA AREAGOTUZ

Komunitatearen esparruan gertatu den bezala, eta AC Aurrera Ekintza Planarekin bat etorri, 2023/24 denboraldian Fundazioak gizarteaaren presentzia eta eragin eraldatzailea areagotu du, gizarte-bazterketako arriskuan dauden pertsonei zuzendutako proiektuen bidez.

Kalteberatasun-egoeran dauden kolektiboei zuzendutako Fundazioaren gizarteratze-proiektuek beti bereizten dituzte helduak eta adingabeak, eta bereziki adingabeengen jartzen dute arreta, kalteberagoak direlako.

Funtsezko jarduera-eremua da, eta Hirugarren Sektore Sozialeko elkarrekin lankidetza ezinbestekoa da.

Gizarteratzeko proiektuak lau lan-arlo handitan sailkatzen ditu Fundazioak.

INKLUSIOA: DESGAIASUNAK DITUZTEN KOLEKTIBOAK

Urrakortasun-egoeran dauden kolektiboak dira, anitzasun fisiko, mental, intelektual edo sentsorial iraunkorrik dituztelako, gizarteratzea zaitzen dietenak.

Desgaitasuna duten kolektibo horiei zuzendutako gizarteratzeko bi proiektu nagusiak **Genuine** eta **Ahalegina** proiektuak dira.

Genuine Athletic Club Fundazioa adimen urritasuna duten pertsonek osatzen duten talde ofiziala da. Astero entrenatzen dute Lezamako kirol-instalazioetan Athletic Clubeko teknikari-ekin, eta LaLiga Genuine, LaLiga Fundazioaren proiektua,

jokatzen dute, bost urtez jarraian Fair Play-ko txapeldun izan dira. Inklusio Multzoan sartuta, LaLiga 46 klub parte hartzen duten bi multzoetako batean, Genuine taldeak ezin izan zuen bere titulua berretsi, nahiz eta aukerekirik iritsi zen laugarren eta azken fasera arte.

Genuine entrenamenduetan, futbol-kontuak ez ezik, adiskidetasuna, gizarte-trebetasunak eta talde-lana lantzen dira. Parte hartuko duten jokalariak adimen urritasuna duten pertsonen Bizkaiko elkarteekin (Adizmi, Down Sindromea Fundazioa, Gaude, Geu Be, Gorabide eta Haszten) batera egindako lan batean hautatzen dira.

Ahalegina proiektua, Genuine harrobia, adimen-desgaitasuna duten adingabeei zuzenduta dago. Parte hartzen duten 9 eta 18 urte bitarteko haurrek doan egiten dute, eta Bizkaiko elkartetako profesionalek eta Athletic Clubeko teknikari boluntarioek zuzentzen dituzte, Bilbao Kirolak-ek eta Barakaldo UKEk utzitako instalazioetan. Helburua da hobekuntza psikomotorrean laguntea eta eguneroko trebetasunak eskuratzeko laguntea (higienea, konpromisoa, ahalegina...).

INKLUSIOA: GENERO-DESBERDINTASUNAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEAK

Marca Terreno & Lay 's Replay izeneko komunitate-proiektu berriarekin batera, Fundazioak, Clara Campoamor elkartarekin lankidetza, genero-desberdintasunaren biktima diren adineko



AUMENTANDO LA PRESENCIA E IMPACTO TRANSFORMADOR DE LA SOCIEDAD CON PROYECTOS DE INCLUSIÓN

Al igual que ha sucedido en el ámbito de la comunidad, y en línea con el Plan de Acción AC Aurrera, durante la temporada 2023/24 Fundazioa ha aumentado su presencia e impacto transformador de la sociedad mediante proyectos dirigidos a personas en riesgo de exclusión social.

Los proyectos de inclusión de Fundazioa dirigidos a colectivos en situación de vulnerabilidad distinguen siempre entre personas adultas y menores de edad, volcándose de manera especial en estos últimos por su mayor vulnerabilidad.

Es un campo fundamental de actuación en el que la colaboración con asociaciones y organizaciones del Tercer Sector Social es indispensable.

Fundazioa clasifica sus proyectos de inclusión en cuatro grandes áreas de trabajo.

INCLUSIÓN: COLECTIVOS CON DISCAPACIDADES

Son aquellos colectivos que se encuentran en situación de vulnerabilidad porque tienen diversidades físicas, mentales, intelectuales o sensoriales duraderas que dificultan su inclusión social.

Los dos principales proyectos de inclusión social dirigidos a estos colectivos con discapacidades son los proyectos **Genuine** y **Ahalegina**.

El Genuine Athletic Club Fundazioa es un equipo oficial del club que está formado por personas con discapacidad intelectual. Entrenan semanalmente en las instalaciones deportivas de Lezama

con personal técnico del Athletic Club y disputan LaLiga Genuine, proyecto de la Fundación de LaLiga, en la que han sido campeones del Fair Play cinco años consecutivos. Encuadrado en el Grupo Inclusión, uno de los dos grupos en el que se dividen los 46 clubes participantes de LaLiga, el Genuine en esta última temporada no pudo revalidar su título, a pesar de que llegó con opciones hasta la cuarta y última fase.

En los entrenamientos del Genuine se trabajan no solo cuestiones futbolísticas, sino de compañerismo, habilidades sociales y trabajo en equipo. Los jugadores y jugadoras participantes se seleccionan en un trabajo conjunto con las asociaciones bizkainas de personas con discapacidad intelectual (Adizmi, Fundación Síndrome de Down, Gaude, Geu Be, Gorabide y Haszten).

El proyecto **Ahalegina**, cantera del Genuine, está dirigido a menores de edad con discapacidad intelectual. Los niños y niñas participantes, que tienen entre 9 y 18 años, lo hacen de manera gratuita y son dirigidos por profesionales de asociaciones de Bizkaia y técnicos voluntarios del Athletic Club, en instalaciones cedidas por Bilbao Kirolak y por el IMD de Barakaldo. El objetivo es contribuir a la mejora psicomotriz y ayudarles en la adquisición de habilidades para el día a día (higiene, compromiso, esfuerzo...).

INCLUSIÓN: MUJERES VÍCTIMAS DE LA DESIGUALDAD DE GÉNERO

Junto al nuevo proyecto de Comunidad llamado Marca Terreno & Lay's Replay, Fundazioa, en colaboración con la asociación



emakumeei zuzendutako proiektu zehatza garatzen du, **Utopia** izenekoa. Hogei emakume inguruk parte hartu dute 2023/24 denboraldian proiektu honetan. Motibazioaren eta hobekuntza fisikoaren ikuspegi bikoitzetik lan egiten da, eta ahizpatasun-espazio bat sortzen da, erabiltzaileei egunerokoan lagunduko dieten aldaketa txikiak eragingo dizkien.

INKLUSIOA: KALTEBERATASUN-EGOERA EKONOMIKO ETA SOZIALEAN DAUDEN PERTSONAK

Fundazioak hainbat proiektu garatzen ditu kalteberatasun-egoera ekonomiko eta sozialean dauden pertsonentzat. Fundazioak laguntzen dituen elkarteen izena daramate proiektu horiek. Fidias, Bakuva, Bizitegi, Emaus, Zabaloetxe eta Bizkaia Koopera dira, azken hau Bizkaiko Foru Aldundiaren eskutik. Kirola, beraz, tresna erabakigarria da kalteberatasun-egoeran dauden kolektibo horiek gizarteratzeko. Gainera, Fundazioak Athletic Cluben eragin izugarria eta positiboa eskaintzen du baterketa soziala saihesteko.

INKLUSIOA: ASKATASUNIK GABE EDO GIZARTERATZE-PROZESUAN DAUDEN PERTSONAK. PROIEKTU BERRIA BASAURIKO BIZKAIA ESPETXEAN

Fundazioak Basauriko Bizkaia Espetxeko presoen kolektiboari zuzendutako proiektu berri bat jarri zuen martxan pasa den denboraldian. Proiektu berria Eusko Jaurlaritzaren menpe dagoen espetxearekin eta askatasunik gabeko pertsonen alde

lan egiten duen Bidesairekin lankidetza sortu zen. Proiettuaren helburua da erakunde horiei laguntzea espetxearen barrutik pertsona berreskuratzeko eta gizarteratzeko prozesuak garatzen, ondoren komunitatean birgizarteratzen lagunduz.

Asteroko, Fundazioko eta Lezamako langile teknikoek kirol-entrenamenduko saioak zuzentzen dituzte zentroan, eta Walking Football-eko partidak jokatzen dituzte, erabiltzaileen ezaugarrietarako modalitate egokia. Gainera, Bidesari eta Eusko Jaurlaritzaren mendeko espetxe-erakundeekin batera hezkuntza-hitzaldiak, bisitak eta kultura-jarduerak antolatzea aurreikusten du proiektuak.

Kirolaz kanpoko jarduera horien artean, bereziki aipagarria izan zen gizonezkoen lehen taldeko bi kapitaineik, Iker Muniainek eta Iñigo Lekuek, Gabonetan egin zuten bisita. Fundazioko teknikariekin astero entrenatzen duten 30 preso inguruk jokalari zuri-gorriekin iritziak trukatu ahal izan zituzten kartzelako areto batean. Johana Ruiz-Olabuenaga, Gizarte Arloko zuzendaria, Muniainekin eta Lekuerekin izan zen Bizkaiko Espetxera egindako lehen bisitan.

Ordubete inguruan, presoek futbolarietkin hitz egin zuten, eta entrenamenduez, lehiaketaz, eliteko futbolari gisa izandako esperientziez eta, nola ez, Athletiken kirol egoera onaz galdeztueten. Muniainek eta Lekuek euren egunerokotasunaz hitz egin zieten, talde-lanaren garrantzia azpimarratuz eta futbolaren eta bizitzaren arteko paralelismoak ezarriz: inoiz amore ez ematea, egunero beste partida bat dela jakinda.

Clara Campoamor, desarrolla un proyecto específico dirigido a mujeres mayores de edad víctimas de la desigualdad de género llamado **Utopía**. Alrededor de una veintena de mujeres han participado en la temporada 2023/24 en este proyecto en el que se trabaja desde la doble perspectiva de la motivación y la mejora física, creando un espacio de sororidad que produzca pequeños cambios en las usuarias que les ayuden en el día a día.

INCLUSIÓN: PERSONAS EN SITUACIÓN DE VULNERABILIDAD ECONÓMICO-SOCIAL

Fundazioa desarrolla diversos proyectos dirigidos a personas en situación de vulnerabilidad económico-social. Estos proyectos llevan el nombre de las asociaciones con las que Fundazioa colabora. Son Fidias, Bakuva, Bizitegi, Emaús, Zabaloetxe y Bizkaia Koopera, esta última de la mano de la Diputación Foral de Bizkaia. El deporte se convierte así en una herramienta decisiva para la inclusión social de estos colectivos en situación de vulnerabilidad. Además, Fundazioa aporta la enorme y positiva influencia del Athletic Club para evitar la exclusión social.

INCLUSIÓN: PERSONAS PRIVADAS DE LIBERTAD O EN PROCESO DE REINSERCIÓN SOCIAL. NUEVO PROYECTO EN EL CENTRO PENITENCIARIO BIZKAIA DE BASAURI

Fundazioa puso en marcha durante la pasada temporada un nuevo proyecto dirigido al colectivo de presos del Centro Penitenciario Bizkaia, en Basauri. El nuevo proyecto nació en colaboración con la propia prisión, dependiente del Gobierno Vasco, y con Bidesari, organización que trabaja en favor de las personas

privadas de libertad. El objetivo del proyecto es ayudar a estas instituciones a desarrollar procesos de recuperación personal e integración social desde el interior de la prisión, facilitando su posterior reinserción en la comunidad.

Semanalmente, personal técnico de Fundazioa y del propio Lezama dirigen en el centro sesiones de entrenamiento deportivo y disputan partidillos de Walking Football, una modalidad idónea para las características de los usuarios. Además, el proyecto contempla la organización de charlas educativas, visitas y actividades culturales en colaboración con Bidesari y las instituciones penitenciarias dependientes del Gobierno Vasco.

Como parte de estas actividades extradeportivas, fue especialmente reseñable la visita navideña que hicieron al centro dos de los capitanes del primer equipo masculino: Iker Muniain e Iñigo Lekue. Alrededor de 30 internos que entran semanalmente con técnicos de Fundazioa pudieron intercambiar impresiones con los jugadores rojiblancos en una de las salas de la cárcel. Johana Ruiz-Olabuenaga, directora del Área Social, acompañó a Muniain y Lekue en esta primera visita al Centro Penitenciario Bizkaia.

Durante cerca de una hora, los internos charlaron con los futbolistas, a quienes preguntaron por los entrenamientos, por la competición, por sus experiencias personales como futbolistas de élite y, cómo no, por el buen momento deportivo que atraviesa el Athletic. Tanto Muniain como Lekue les hablaron de su día a día, incidiendo en la importancia del trabajo en equipo y estableciendo paralelismos entre el fútbol y la vida: no rendirse nunca, sabiendo que cada día es un nuevo partido.





KULTURA, GIZARTE-TRESNA DEN ALDETIK

Denboraldi bakoitzean bezala, Athletic Clubek, Fundazioaren eskutik, bere bi jaialdi kultural nagusiak antolatu zituen (Thinking Football Film Festival eta Letrak eta Futbola), eta kultura gizartea eraldatzeko faktore eta komunitatearen eta inklusioaren aldeko lanean funtsezko elementu bihurtzeko hainbat jarduera garatu zituen.

Ekimen horietako bakoitzean, Fundazioak futbolaren beste kontzeptu bat babestu zuen, hezkuntza-elementu gisa berrasmatzu eta Athletic Club familien eta hezkuntza-erakundeen aurrean gazteen hezkuntza-prozesuan lagunarrria dela erakutsiz.

Kulturak, azken batean, Fundazioaren gizarte-lan guztian eragina du, aniztasuna, ekitatea, genero-berdintasuna eta Giza Eskubideei eta Oinarrizko Askatasunei lotutako beste edozein balio sustatzu eta, era berean, Euskal Herriko kultura- eta kirol-nortasuna babestuz, euskarari arreta berezia eskainiz.

THINKING FOOTBALL

Thinking Football Film Festival jaialdiaren XI. edizioa, Athletic Club Fundazioak antolatua BBK Aretoa, Grupo Tecman,

Meliá Bilbao eta Metro Bilbaoren babesarekin eta DAZN, LaLiga Fundazioaren eta Vueling-en lankidetzarekin, 2023ko urriaren 9tik 14ra bitartean egin zen. Zineko eta futboleko sei egun eta Virginie Verrier zuzendari frantziarraren 2023ko Publikoaren Saria irabazi zuen film bat utzi zizkigun: "Marinette".

Denboraldi honetako Thinking-eko gonbidatu berezien artean futboleko mitoak nabarmendu ziren: Thomas N'Kono atezain kamerundarra, Liam Brady erdilari irlandarra, Ivano Bonetti Sampdoria txapelduneko italiarra, Miodrag Belodedici Europan bi aldiz txapeldun izandakoa, Allan Cockram Brentford Penguins taldeko trebatzailea eta Martin Bengtsson, 2022ko Publikoaren Saria jaso zuena 'Tigrar' filmaengatik.

Hain zuzen ere, XI. edizio honetako Thinking-en berritasunetako bat pelikula suediar honen goizeko emanaldi berezi bikoitza izan zen, ikastetxeetako nerabeei eta Lezamako teknikariei zuzendua. Martin Bengtssonek berak, Ronnie Sandhal filmaren zuzendariarekin batera, proiekzioen ondorengo solasaldian parte hartu zuen, identitatea, presio soziala edo osasun mentalari buruzko gai interesgarriak jorratzu.



LA CULTURA COMO HERRAMIENTA SOCIAL

Como cada temporada, el Athletic Club, de la mano de Fundazioa, organizó sus dos principales festivales culturales (Thinking Football Film Festival y Letras y Fútbol) y desarrolló diversas actividades encaminadas a hacer de la cultura un factor de transformación de la sociedad y un elemento clave en el trabajo por la comunidad y la inclusión.

En cada una de estas iniciativas, Fundazioa respaldó un concepto diferente del fútbol, reinventándolo como un elemento educativo y mostrando al Athletic Club ante las familias e instituciones educativas como un aliado en el proceso educativo de los jóvenes.

La cultura, en definitiva, impregna de manera transversal toda la labor social de Fundazioa, promoviendo la diversidad, la equidad, la igualdad de género y cualesquiera otros valores vinculados a los Derechos Humanos y Libertades Fundamentales e, igualmente, protegiendo la identidad cultural y deportiva de Euskal Herria, con especial atención al euskera.

THINKING FOOTBALL

La XI edición del Thinking Football Film Festival, organizado por la Fundación Athletic Club con el patrocinio de la Sala BBK,

Grupo Tecman, Meliá Bilbao y Metro Bilbao, y la colaboración de DAZN, Fundación LaLiga y Vueling, se celebró entre el 9 y el 14 de octubre de 2023 y nos dejó seis días de cine y fútbol y una película ganadora del Premio del Público 2023: 'Marinette' de la directora francesa Virginie Verrier.

Entre los invitados especiales del Thinking de esta temporada destacó la presencia de leyendas del fútbol como el portero camerunés Thomas N'Kono, el centrocampista irlandés Liam Brady, el italiano de la Sampdoria campeona Ivano Bonetti, el doble campeón de Europa Miodrag Belodedici, el coach de los Brentford Penguins Allan Cockram o Martin Bengtsson, quien recogió el Premio del Público 2022 por la película 'Tigrar'.

Precisamente, una de las novedades del Thinking de esta XI edición fue el doble pase especial matutino, dirigido a adolescentes de centros educativos y al personal técnico de Lezama, de esta película sueca. El propio Martin Bengtsson, acompañado del director del filme Ronnie Sandhal, participaron en el coloquio posterior a las proyecciones, tratando temas tan interesantes como la identidad, la presión social o la salud mental.



Halaber, Thinkingeko zineforumetan parte hartu zuten Marco Ponti eta Leonardo Godano ‘La Bella Stagione’ filmaren zuzendariak eta ekoizleak; Billy Dosanjh eta Yaw Basoah ‘Green Lions’ filmaren zuzendariak eta ekoizleak; Sean Cassey ‘Liam Brady: The Irishman Abroad’ filmaren zuzendariak; Virginie Verrier ‘Marinette’ Publikoaren Sariaren azken irabazoleak eta Louis Myles ‘Mighty Penguins’ filmaren zuzendariak.

Jaialdiaren amaiera bikainak aparteko paragrafo bat merezi du txosten honetan, izan ere, Thinking Football 2023 jaialdia ahalik eta ondoen amaitu zen, BBK Aretoko ikusleak zutik zeudela eta Mighty Penguins-i (Pinguino Boteretsuak) hunkitura txaloka. Klubaren armarian agertzen den bezala, Brentford Penguins FC taldearentzat ezer ez da ezinezkoa (‘Nihil impossibile est’) eta jarrera horrekin mugitzen dira munduan zehar Down sindromea duten adingabeen taldea, Allan Cokram Premier-eko jokalari ohiak zuzenduta. Bilbora egindako bisitan erakutsi zuten jarrera bero-bero bera izan zuten, Ahalegina taldearekin futbolean jokatzeko aukera izan baitzuten, Down sindromea duten adingabeei zuzendutako Fundazioaren proiektua, hain zuzen ere.

Azkenik, esan behar da sei egunetan Athletic Clubeko aurpegi ezagunak ez zirela falta izan BBK Aretoan, eta Jose Angel Iribar, Oscar de Marcos, Mikel Vesga, Iraia Iturregi,

Ainhoa Tirapu, Garazi Murua, Marta Unzue (‘Marinette’ filmera lehenengo bi emakumezko talde guztiak joan ziren) eta Zuzendaritza-Batzordeko ordezkari ugari: Nerea Ortiz, Jon Ruigomez, Josetxu Urrutia, Egoitz Begoña, Igor San Roman, Laura Ruiz de Azua, Jon Salinas, Ana Diez eta Goizalde Santamarina.

LETRAK ETA FUTBOLA

2024ko Letrak eta Futbola Kultur Jaialdiaren XV. Edizioa, Athletic Clubek antolatuta Fundazioak Grupo Radimer eta Espainiako Gobernuko Kultura eta Kirol Ministerioaren babesarekin eta BCD Travel, BCD Sports eta Aranzazu Hotelesen lankidetzarekin, martxoaren 18tik 22ra egin zen San Mameseko Geuria! kirol-tabernan.

Ikusleen erantzuna oso positiboa izan zen eta sarrerak egun gutxiren buruan agortu ziren. Horrek esan nahi du komunitateak jaialdi kultural hau eskertzen duela.

Jaialdia astelehenean, hilak 18, hasi zen ‘Futbola eta Musika’ gaiari buruzko hitzaldi batekin. Bertan Marwan, Antonio Agredano, Ray Loriga eta Deu Txakartegi aritu ziren, azken hau moderatziale lanetan. Oroi menerako geratuko da guitarra akustikoa eskuan, bi kanturen zuzeneko interpretazioa Marwanen eskutik.

Astearteean, hilak 19, ‘Saber y empatar Athletic Club edition’ podcast-en programa berezia ospatu zen, Miguel Gutierrez,

Asimismo, participaron en los cinefórmats del Thinking el director y el productor de ‘La Bella Stagione’, Marco Ponti y Leonardo Godano; el director y el productor de ‘Green Lions’ Billy Dosanjh y Yaw Basoah; el director de ‘Liam Brady: The Irishman Abroad’, Sean Casey; la directora de ‘Marinette’ (ganadora final del Premio del Público), Virginie Verrier; y el director de ‘Mighty Penguins’, Louis Myles.

El colofón y broche de oro del festival merece un párrafo aparte en esta memoria, puesto que el Thinking Football 2023 terminó de la mejor manera posible, con el público de la Sala BBK de pie y aplaudiendo emocionado a los Mighty Penguins (Pingüinos Poderosos). Tal y como figura en el escudo del club, para el Brentford Penguins FC nada es imposible (‘Nihil impossibile est’) y esa es la actitud con la que el equipo de menores con síndrome de Down, dirigidos por la mano maestra del exjugador de la Premier Allan Cokram, se mueven por el mundo. La misma entusiasta actitud que demostraron durante su visita a Bilbao, donde tuvieron la oportunidad de jugar al fútbol con el equipo de Ahalegina, el proyecto de Fundazioa igualmente dirigido a menores con síndrome de Down.

Por último, señalar que a lo largo de los seis días no faltaron en la Sala BBK caras conocidas del Athletic Club y asiduas al festival de cine como Jose Angel Iribar, Óscar de Marcos, Mikel Vesga, Iraia Iturregi, Ainhoa Tirapu, Garazi Murua, Marta Unzué (a la película ‘Marinette’ asistieron los dos primeros equipos femeninos

al completo), además de una nutrida representación de la Junta Directiva: Nerea Ortiz, Jon Ruigómez, Josetxu Urrutia, Egoitz Begoña, Igor San Román, Laura Ruiz de Azua, Jon Salinas, Ana Díez y Goizalde Santamarina.

LETRAK ETA FUTBOLA

La XV edición del festival cultural Letras y Fútbol 2024, organizado por el Athletic Club y Fundazioa con el patrocinio de Grupo Radimer y el Ministerio de Cultura y Deporte del Gobierno de España, y la colaboración de BCD Travel, BCD Sports y Aránzazu Hoteles, se celebró entre el 18 y 22 de marzo en el Geuria! San Mamés Sports Bar.

La respuesta del público fue muy positiva y las entradas se agotaron en pocos días, lo que supone toda una muestra de reconocimiento por parte de la comunidad a este festival cultural.

El festival comenzó el lunes 18 con una charla sobre ‘Fútbol y Música’ en la que intervinieron Marwán, Antonio Agredano, Ray Loriga y Deu Txakartegi en el papel de moderador. Para el recuerdo, guitarra acústica en mano, la interpretación en directo de dos temas a cargo de Marwán.

El martes 19 se celebró un programa especial del podcast ‘Saber y empatar Athletic Club edition’, dirigido por Miguel Gutiérrez, Carlos Marañón y Antonio Pacheco ‘Pach’. El invitado especial de la sesión fue Antonio López, flamante embajador del 125 aniversario del Club. Una charla memorable repleta de





Carlos Marañon eta Antonio Pacheco ‘Pach’ zuzendurik. Gonbidatu berezia Antonio Lopez izan zen, Klubaren 125. urteurreneko enbaxadoreetako bat. Umorez beteriko solasaldi gogoangarria izan zen, eta Iribar eta Dani mito zuri-gorrien ezusteko hitzaldiak nabarmendu ziren.

Asteazkenean, hilak 20, Letrak eta Fubola taldeko bi lagun zaharrek, Zuhaitz Gurrutxagak eta Ander Izagirrek, ‘Txapeldunordea’ liburua aurkeztu zuten. Zuhaitzen ‘FutbolisTOC’ bakarrizketaren berrargitalpen eguneratua, Ander Izagirrek maisuki kontatua. Dramaren eta komediaren arteko koktel zoragarria.

Ostegunean, hilak 21, jaialdia serioago jarri zen futbolaz eta haurtzaroaz, ametsez eta amesgaiztoez hausnartzeko. Literatur topaketaren protagonistak Carlos Marzal eta Joan Jordi Miralles izan ziren, Galder Reguera Letren eta Futbolaren zuzendariak moderatutako hitzaldian. Kirolaren inguruko esperientzia pertsonalei buruzko esku-hartzeen gurutzaketa horretan, argi geratu zen futbola bizi-eskola argitsua dela.

Azkenik, jaialdiaren itxiera ostiralean, hilak 22, heldu zen, ahalik eta ondoen, edukiera osoarekin eta publikoa pozik ‘Futbolaren kontalariak’ hitzaldiarekin, Carlos Martinez, Miguel Angel Roman, Andrea Segura eta Julen Axperen eskutik, eta Agustin Benitok zuzenduta.

BERTSODERBIA

Athleticzale eta Errealzale bertsolarien arteko ohiko hitzordua 2024ko urtarrilaren 11ko eguerdian izan zen, arratsalde horretan bertan San Mamesen Athletic Clubek eta Errealak jokatu zuten derbiaren harira. Edizio honetarako, Amorebietako Zornotza Aretoa aukeratu zuten. Ordubetetik gora euskal derbiaren inguruko futbolaren gaiari buruz aritu ziren Athletic Cluben aldetik, Onintza Enbeita, Igor Elortza eta Anjel Mari Peñagarikano, eta Errealaren aldetik, Andoni Egaña, Alaia Martin eta Beñat Gaztelumendi. Gai-jartzailea Eta Abar Zornotzako Bertso Eskolako ordezkari bat izan zen.

Bertsoderbia Athletic Club Fundazioaren kultur ekintzetako bat da, eta bertsolaritza, euskal kultura eta euskara sustatzea du helburu, baita lehia mota jakin bat aldarrikatzea ere: osasuntsua, dibertigarria eta burutsua. Horren haritik, Bertsoderbia Real Sociedad Fundazioaren laguntzarekin antolatzen da.

Azkenik, Bertsoderbiak ere bere protagonismoa izan zuen San Mames inguruan, partidaren aurreko orduetan antolatu zen Athletic Plaza zela-eta. Hori deta eta, arratsaldeko lehen orduan, Angel Peñagarikano eta Andoni Egaña bertsolariek, goizean ere Amorebietan egondakoek, oholtzara igo eta ber tso-saio labur eta mamitsua egin zuten. Beti bezala, ez ziren falta izan bi bardoen arteko gezi umoretsuak, argitasunez eta poesiaz beteak, entzuleen barreak eta txaloak piztu zitzuztenak.



humor en la que destacaron las intervenciones sorpresa de dos leyendas rojiblancas: Iribar y Dani.

El miércoles 20, llegó el turno de dos viejos conocidos de Letrak eta Fubola, Zuhaitz Gurrutxaga y Ander Izagirre, que presentaron su libro 'Subcampeón'. Una reedición actualizada del monólogo de Zuhaitz 'FutbolisTOC' narrado con maestría por Ander Izagirre. Un cóctel maravilloso entre el drama y la comedia.

El jueves 21, el festival se puso algo más serio para reflexionar sobre fútbol e infancia, sueños y pesadillas. Los protagonistas del encuentro literario fueron Carlos Marzal y Joan Jordi Miralles, en una charla moderada por Galder Reguera, director de Letras y Fútbol. En ese cruce de intervenciones sobre experiencias personales en torno al deporte, quedó claro que el fútbol es una lúminosa escuela de vida.

Por último, la clausura del festival llegó el viernes 22 de la mejor manera posible, con el aforo completo y el público satisfecho con 'Los narradores del fútbol', la última charla del programa a cargo de Carlos Martínez, Miguel Ángel Román, Andrea Segura y Julen Axpe, y moderada por Agustín Benito.

BERTSODERBIA

La tradicional cita entre bertsolaris athleticzales y realzales se celebró al mediodía del 11 de enero de 2024 con motivo del derbi que esa misma tarde se disputó en San Mamés entre

Athletic Club y Real Sociedad. Para esta edición, el lugar elegido fue el Zornotza Aretoa de Amorebieta. Más de una hora de bertsos de temática futbolística en torno al gran derbi vasco en la que actuaron Onintza Enbeita, Igor Elortza y Anjel Mari Peñagarikano por parte del Athletic Club y Andoni Egaña, Alaia Martín, Beñat Gaztelumendi por parte de la Real Sociedad. Como gaijartzaile ejerció un representante de la Eta Abar Zornotzako Bertso Eskola.

Bertsoderbia es una de las acciones culturales de la Fundación Athletic Club y tiene por objetivos el fomento del bertsolarismo, la cultura vasca y el euskera, así como la reivindicación de un determinado tipo de rivalidad: sana, divertida y con ingenio. En ese mismo sentido, Bertsoderbia está organizado con la colaboración de la Fundación Real Sociedad

Por último, el Bertsoderbia tuvo también su protagonismo en las inmediaciones de San Mamés con motivo del Athletic Plaza que se organizó en las horas previas al partido. Así, a primera hora de la tarde, los bertsolaris Angel Peñagarikano y Andoni Egaña, que a la mañana también habían participado de Amorebieta, se subieron al escenario y deleitaron a la afición con una breve y jugosa sesión de bertsos. Como siempre, no faltaron los dardos humorísticos entre ambos bardos, repletos de ingenio y poesía, que despertaron las risas y los aplausos del numeroso público congregado.



www.athletic-club.eus

